




Enpresen konfiantza hobetu da hirugarren hiruhilekoan

Enpresen konfiantza
Indizea




Iturria: INE.

INEk aste honetan argitaratutako informazioaren arabera, **EAEko enpresen konfiantza hobetu egin zen 2023ko hirugarren hiruhilekoan**. Zehazki, indizeak 136ko maila lortu zuen, 2019ko hirugarren hiruhiletik izandako baliorik handiena. Era berean, enpresek adierazi zuten bai aurreko hiruhilekoarekiko egoera bai aurreikuspenak hobetu egin direla.

Aireko trafikoa beste marka bat ezarri du

Aireportuetatik bidaiatu duten pertsonak
Urte bakoitzeko ekaina. Milakoak




Iturria: AENA.

Ekainean, EAEko aireportuetatik bidaiatu duten pertsonen kantitatea %14,5 handitu zen aurreko urteko kopuruaren aldean. Guztira, 700.000 bidaiarik bidaiatu zuten, hau da, serie historiko osoan ekain batek izan duen erregistrorik handiena.




EAEko KPIa berriro moteldu zuen bere igoera



Iturria: INE.

Euskadiko KPIaren urte arteko aldakuntza tasa %2,3 izan zen ekainean, maiatzean erregistratutakoa baino 1,1 puntu txikiagoa. Erregistro hori 2021eko martxotik izan den txikiena da, eta energiaren prezio baxuagoek eta elikaduraren prezioen igoeretan gertatu zen apaltzeak eragin zuten. Bestalde, azpiko inflazioa %6,4tik %6,2ra jaitsi zen.

Etxebizitzen salmentak behera egiten jarraitzen du



Iturria: INE.

Maiatzean, etxebizitzen salmenta % 18,5 murriztu zen Euskadin, aurreko urteko hil beraren aldean. Horrela, lehen bost hilabeteetako kopuru metatua 10.000 eragiketatik urrundu da. Izan ere, zifra hori gainditu egin zen aurreko urtean.